

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Landutako informazioaren bilaketarako estrategiak aplikatuz, emandako euskarri desberdinetako (paperezkoak, ikus-entzunezkoak zein digitalak) testuetan finkatutako komunikazio-asmoari dagokion informazio zehatza identifikatu eta erregistro-fitxan jaso	<p>1.1 Idatzi nahi den testuaren komunikazio-asmoaren baitan beharrezko informazioa identifikatzen du.</p> <p>1.2 Beharrezko informazioa aurkitzeko estrategiak erabili eta adierazten ditu.</p> <p>1.3 Hautatutako informazioa egoki, modu ulergarrian eta zuzen erregistratzen du.</p>
2. Testua planifikatzeko komunikazio-asmo jakin bati erantzuten dion informazioa (norberak jasotakoa nahiz emandakoa) deskribapen-egitura irudikatzen duen eskema grafikoan antolatu.	<p>2.1 Informazioa gaiaren eta emandako azpi-gaien baitan sailkatzen du.</p>
3. Emandako dibulgazio-artikuluen sarreraren egokitasuna baloratu emandako irizpideen baitan eta irizpide horien arabera emandako sarrerak eraldatu.	<p>3.1 Testuaren laburpena idazten du eskema grafikoko azpi-gaiak lotuz.</p> <p>3.2 Komunikazio egoeraren edukiaren baitan sarrera egokia hautatzen du.</p> <p>3.3 Emandako hizkuntza-baliabideen artetik egokiak hautatuz sarrera eraldatzen du.</p>
4. Ideien arteko erlazio semantikoa adierazteko landutako hizkuntza-baliabideak aplikatu bai horretarako prestatutako testuen osaketan, bai norberaren testuaren sorkuntzan, bai berrikusketa prozesuan.	<p>4.1 Gehiegizko errepikapenik egin gabe, jarraipen tematikoa bermatzeko hizkuntza baliabide egokiak hautatzen ditu.</p> <p>4.2 Ideiak gehitzeko testu antolatzaile egokiak hautatzen ditu.</p>
5. Bai norberak, bai besteek sortutako testuetako informazioa hartzailearentzat ulergarria izan dadin, landutako baliabideak (linguistikoak zein edizio digitalekoak) egoki erabili.	<p>5.1 Azalpenak eta adibideak emateko antolatzaileak egoki erabiltzen ditu.</p>
6. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	<p>6.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.</p> <p>6.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.</p>
7. Mintegiak hautatutako irakurketa-liburua irakurri eta ulertu.	<p>7.1 Irakurritako literatur-testua irakurri eta ulertzen du.</p> <p>7.2 Irakurketa-liburuaren inguruan egiten zaizkion galderei zuzen erantzuten die eta horien inguruko taldeko hausnarketan parte hartzen du.</p>